

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO KALEAK GARBITZEN DITUZTEN LANGILEEN ETA HAIEN ENPRESAREN ARTEKO ARAZOAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko abenduaren 11n Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 16an UTE Donostiako Garbiketa-ko Enpresa Batzordeko lehendakariak idatzi bat helarazi zigun Udalbatza osatzen dugun talde guztioi, langileen eta enpresaren arteko arazoaren inguruan hitz egiteko bilera eskaria eginez.

EH Bildu udal taldeak komitearekin egindako bileran, langileek adierazi ziguten Gipuzkoako hitzarmenaren negoziazioa egiten ari direla eta desadostasunak larriak izanik, Donostiako egoerak bereziki baldintza dezakeela irtenbide egokia.

Sindikatuak oso kezkatuta daude eta, azken egunetan prentsan ikusi dugun bezala, greba mugagabea iragarri dute abenduaren 20tik aurrera.

Langileen ordezkariak udal taldeekin izan diren bezala, Udal Gobernuako kideekin ere egon arren, haiei legokiekeen bitartekaritza, hiriko arazo orokorreari irtenbideak bilatze aldera, ez dira garatzen ari.

Abenduaren 11n egindako batzordeetan Ogasuneko delegatuak adierazi zigun Udal Gobernuak uste duela eztabaida hauek PRECOra bideratu behar direla eta ez dutela bitartekaritza funtziorik egin behar. Bestetik, delegatuak adierazi du pleguek ez dutela baimentzen prezioaren berrikuspenik (22/2013 legeak horrela derrigortzen duelako), baina talde honen ustez, horrek ez du esan nahi langileen eskubideak hobetu ezin direnik.

Egoera hau kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren bitartekaritza lanak egin ditzala garbiketako langileen eta enpresaren arteko arazoak sortutako egoerari irtenbideak bilatze aldera.

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia